

## **2012ko EAerako aurrekontuen proposamena**

### **Murrizketak gastu sozialean eta ahultzea zerbitzu publikoetan**

STEE-EILASek bere erabateko gaitzespena adierazten die Eusko Jaurlaritzak atzo, urriaren 26an, aurkezturiko EAerako aurrekontuen proposamenaren ildo nagusiei. Aipatu aurrekontu egitasmo hori aldatu ezean kezka larria plazaratzen du STEE-EILAS sindikatuak.

Gobernuak behin baino gehiago esan duenaren aurka, oinarrizko gastu sozialean murrizketa dago: osasun arloan % -0,5 eta hezkuntzan; -0,9 eta horrela hiritarrentzako zerbitzuak mantenduko dira beharreko inbertsioak geldituz, plantillak txikituz eta soldaten murrizketak mantenduz. Hezkuntzan 24 milioi euro gutxiago egongo dira 2011ko aurrekontuaren aldean, nahiz eta azken hau gutxiegiak izan den hezkuntza sistemaren beharrei erantzuteko. Aldiz, badirudi dirua badagoela beste gastu eztabaidagarriak lehenesteko, hala nola AHT/TAV, datorren urteko aurrekontuetan % 27ko igoera izango duena.

Ez da egia gizarte gastua blindatzeko eta zerbitzu publikoak defendatzeko Eusko Jaurlaritzak aurrekontuak erabiliko dituen. Izan ere, aurrekontu egitasmo honek krisiaren ondorioz latzenak pairatzen ari diren eta babes gutxien duten gizarte sektoreak nabarmen kaltetzen ditu: Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren aldaketaren bidez % 7an jaitsi dira gizarte laguntzak, pertsona asko bazterketa sozialaren mugan utziz.

Patxi Lopezen gobernuari ausardia falta zaio politika fiskal aurrerakoiagoak lantzeko eta bultzatzeko, zeinekin erakunde publikoek baliabide gehiago eskura baitzezaket, horrela herritarren beharrak aintzat hartuko dituzten aurrekontuak diseinatzeko. Nahiago izan du murrizketa sozial eta laboralen bidean jarraitzea, krisia sortu ez dugunok bere ondorioak ordain ditzagun.

**2012ko urriaren 27an**

**STEE-EILAS eko Batzorde Iraunkorra**